



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 10a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-25/PRO-00014. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00221. Galdera, Nekazaritzako Politika Erkidearen etorkizuneko perspektibei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (5. or.).
- 11-25/POR-00222. Galdera, Ubagua ibaiaren bilakaerari eta arrisku ekologikoari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (6. or.).
- 11-25/POR-00223. Galdera, Ubagua ibaiaren egoera ekologikoa babesteko neurriei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (6. or.).
- 11-25/POR-00224. Galdera, Larraldi Zerbitzuko osasun-langileen gainzama ekidite aldera orain arte hartu diren neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00225. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeko udalekin berriazko planak taxutzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00226. Galdera, Bosch multinazionalaren ordezkariekin izandako bilerari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (8. or.).
- 11-25/POR-00227. Galdera, BSH enpresak sortutako egoera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari eta jarduketa-ildo nagusiei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00228. Galdera, Foru Komunitatean zainketa aringarrien arreta zertan den jakiteko. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00229. Galdera, egoitzak publikatzeko agendari buruzkoa, desgaitasunari arreta ematen diotenei lehentasuna emanda. Javier Arza Porras jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00230. Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoaren eta hibrido entxufagarrien portzentajea igoztearen balorazioari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).

- 11-25/POR-00231. Galdera, Belateko tuneletako obran Kontratazio Mahaiko lehendakariak izandako jokabideari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00232. Galdera, paziente euskaldunentzako logopedia-arretari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00233. Galdera, Nafarroan tasa turistiko bat aplikatzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00234. Galdera, BSHren egoerari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00235. Galdera, Kirolaren Plan Estrategiko berriaren aurkezpena atzeratzeko arrazoiei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00236. Galdera, gure erkidegoko organo-emateen datuei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00237. Galdera, haur-pobrezia zuzentzeko neurriei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00238. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00239. Galdera, zenbait instituzio eta forotan euskara erabiltzea ukatzen duten jarrera politikoaren gaineko balorazioari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00240. Galdera, etxebizitzaren arloko politika publikoetarako baliabideei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00241. Galdera, BSH bezalako enpresa estrategikoak ixtea ekiditeko eta industria-enplegua babesteko neurri zehatzei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00242. Galdera, Unibertsitatara Sartzeko Proban gertatu diren joera ideologikoei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00243. Galdera, enpleguak foru erkidegoan duen bilakaerari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00244. Galdera, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Europako Sareak pobreziaren egoerari buruz egin duen 15. txostenean jasotako Nafarroako datuen bilakaerari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00014. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168., 172., 173. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakur-keta bakarreko prozeduraz izapidetzea, Erregela-menduko 172 eta 173. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenke-tak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak aldaketa ugari izan du urteetan zehar, unean uneko errealitatera eta toki-entitateen beharretara moldatzeko xedez.

Testuinguru horretan, toki-entitateek hainbat neurri hartu izan dituzte, pertsona eta gizatalderik behartsuenentzako hobarien bitartezkoak, besteak beste. Toki-entitateei beharrezkoa zaie ahalmen hori edukitzea, sortzen diren egoeretara egoki-tzeko, zeinek familien ahalmen ekonomikoa ukitzen baitute.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 138. artikulua ezar-tzen duenez, herritarrek ordaintzen duten lurralde-kontribuzioaren zerga-oinarritzat hartzen da onda-sun higiezinaren katastro-balioa.

Nafarroako Toki Ogasunen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 139. artikulua ezartzen ditu lurralde-kontribuzioaren zergaren kuota eta zerga-oinarriari aplikaturiko karga-tasa, berriro itzulirik jatorrizko kopuruetara; hots, ehuneko 0,1etik 0,5era bitarteko tartera.

Bestalde, aipatu foru legearen 140. artikulua ezartzen ditu toki-entitateek lurralde-kontribuzioa-ren gainean ezar ditzaketen hobariak. Hobari horiek aldatuak eta hobetuak izateko modukoak dira.

Horrela, hiri-lurren balio-gehikuntzaren (gain-balioen) gaineko zergari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitate osorako ehuneko 8ko karga bakar bat ezartzen da.

Gainera, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Titu-luaren VIII. Kapitulua, etxebizitza hutsen gaineko

zergari buruzkoa, kentzen da. Horren ordez, etxebizitzak alokairurako eskaintzen dituzten jabeentzat lurralde-kontribuziorako hobariak ezartzen dira. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluaren VIII. Kapituluaren indargabetzea honako ondorioztapen honetan oinarritzen da: hamabi urteko indarraldia igaro ondoren, kapitulu horrek biltzen dituen politikak eraginkortasunik gabeak gertatu dira zeuzkaten helburuen ikuspegitik; batez ere, alokairuko etxebizitzaren eskaintzan gorakada nabarmen bat lortzearenetik. Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da etxebizitza-errentamenduarentzat pizgarri diren politikei berriz heltzea, eta hori ere xede hartzen du foru-lege proposamen honen aldaketetako batek.

Hori horrela, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea honela aldatzea proposatzen da:

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea.

Bat. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 139. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

"2. Karga-tasa % 0,10etik 0,50era bitartekoa izanen da".

Bi. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 140. artikulua 4. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

"4. Zilegi izanen da ordenantza fiskalen bidez hobari bat arautzea, zerga-kuotaren ehuneko 25etik ehuneko 90era bitartekoa.

Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek, salbuetsiak alde batera utzita, ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko solda-

ta halako lau; eta toki-entitate bakoitzak errentaren araberako tarte desberdinak aurreikusi ahal izanen ditu, artikulu honetan ezarritakoaren mugapean.

Hobariaren gainerako alderdiak, formazkoak nahiz mamizkoak, zerga-ordenantzaz arautuko dira".

Hiru. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 140. artikulua 6. apartatua gehitzen zaio. Honako testu hau izanen du:

"6. Zergaren kuotaren ehuneko 25eko hobaria izanen dute errentamendu-araubidean dauden etxebizitzek. Egoera hori frogatzeko modua eta hobari horren gainerako zertzeladak, formazkoak nahiz mamizkoak, kasuan kasuko zerga-ordenantzaz zehaztuko dira."

Lau. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 176. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du: "Zerga honen kuota kalkulatu da zerga-oinarriari % 8ko karga-tasa aplikatuz."

Bost. Kendu egiten da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluaren VIII. Kapituluak, "Etxebizitza hutsen gaineko zerga".

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzeak

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek 2026ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00221. Galdera, Nekazaritzako Politika Erkidearen etorkizuneko perspektibei buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Nekazaritzako Politika Erkidearen etorkizuneko perspektibei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egingen dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nekazaritza Politika Erkidearen hurrengo aldia jorratzen hasi da. Negoziazioak oso hasierako fasean daude oraindik, eta honako galdera hau egin nahi diogu Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak zer jarrera edo planteamendu dauka Nekazaritza Politika Erkidearen etorkizunari begira?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-25/POR-00222. Galdera, Ubagua ibaiaren bilakaerari eta arrisku ekologikoari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Ubagua ibaiaren bilakaerari eta arrisku ekologikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gortee-tako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gober-nuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-seilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Ubagua ibaiaren sorburua, Errezun baitago, Natura 2000 Sareko "Ega-Urederra ibaiak" Kon-tserbazio Bereziko Eremuaren parte da, eta jasotako zenbait salaketa lokalen eta eskuragarri dau-den emari-datuen arabera, haren ibilguan 200 metro baino gehiago ageri izan dira lehor uda aldean. Egin al da edo egitea aurreikusten al da haren bilakaerari eta arrisku ekologikoari buruzko txosten teknikorik?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/POR-00223. Galdera, Ubagua ibaiaren egoera ekologikoa babesteko neurriei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Ubagua ibaiaren egoera ekologikoa babesteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gortee-tako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gober-nuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kon-seilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Ubagua ibaiaren sorburua, Errezun baitago, Natura 2000 Sareko "Ega-Urederra ibaiak" Kon-tserbazio Bereziko Eremuaren parte da, eta jasotako zenbait salaketa lokalen eta eskuragarri dau-den emari-datuen arabera, haren ibilguan 200 metro baino gehiago ageri izan dira lehor uda aldean. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer neurri aurreikusten du Uba-gua ibaiaren egoera ekologikoa babesteko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/POR-00224. Galdera, Larrialdi Zerbitzuko osasun-langileen gainzama ekidite aldera orain arte hartu diren neurriei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Larrialdi Zerbitzuko osasun-langileen gainzama ekidite aldera orain arte hartu diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Larrialdi Zerbitzuko 200 osasun-profesionalek baino gehiagok argitaratutako gutuna ikusita, zerbitzu horren gainzama ekidite aldera orain arte ezarritako neurriak ez dira eraginkorrak izaten ari. Zer egingen du arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/POR-00225. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeko udalekin berariazko planak taxutzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeko udalekin berariazko planak taxutzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Uztailaren 3ko 10/2010 Foru Legearen 97.4 artikulua honako hau xedatzen du:

"Etxebizitzaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuak departamentuak, "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklarazioarekin batera edo horren ondoren, berariazko plan bat onetsiko du, deklarazioan agerian geraturiko desorekak zuzentzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak proposatuko dituena, bai eta betetze-egutegi bat ere. Departamentuak zilegi izanen du

kasuko eremuan dauden udalekin elkarlan-formulak adostea, bermatuko dutenak udal horiek partehartzea izanen dutela, administrazio publiko bakoitzak bere eskumenen esparruan jokatzu betiere, apartatu honek aipatzen duen berariazko planeko proposamenaren prestaketan, garapenean eta finantzaketan".

Iragan maiatzaren 19an, Nafarroako Gobernuak tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratu zituen ofizialki 21 udalerrri.

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako Departamentuak nola egin nahi du tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeko udalekin berariazko planak taxutzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesua?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/POR-00226. Galdera, Bosch multinazionalaren ordezkariekin izandako bilerari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Bosch multinazionalaren ordezkariekin izandako bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer balorazio egiten duzu Bosch multinazionalarekin BSHren Ezkirozko instalazioaren etorkizunari buruz astelehenean izandako bileraz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/POR-00227. Galdera, BSH enpresak sortutako egoera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari eta jarduketa-ildo nagusiei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko, BSH enpresak sortutako egoera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari eta jarduketa-ildo nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak ekainaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

BSHren Ezkizozko plantaren etorkizunari buruz ezagutu diren azken informazioak ikusita, heldu den astelehenean BSHk, Bosch-ek eta Industria Ministerioak Nafarroako Gobernuarekin egiten duten bilera dela-eta, honako hau galdetzen dizugu: zer balorazio egiten duzu enpresak sortu duen egoerari buruz eta zeintzuk izanen dira, hemendik aurrera, Nafarroako Gobernuaren jarduketa-ildo nagusiak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00228. Galdera, Foru Komunitatean zainketa aringarrien arreta zertan den jakiteko

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, Foru Komunitatean zainketa aringarrien arreta zertan den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da zainketa aringarrien arreta Nafarroako Foru Komunitatean?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-25/POR-00229. Galdera, egoitzak publikatzeko agendari buruzkoa, desgaitasunari arreta ematen diotenei lehentasuna emanda

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porras jaunak egindako galdera, egoitzak publikatzeko agendari buruzkoa, desgaitasunari arreta ematen diotenei lehentasuna emanda.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier Arza Porras

sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

PSNk, Geroa Baik eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroak 2023an sinatutako programa-akordioan honako neurri hau ageri da jasota: "azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diona". Legegintzaldiaren erdian gaudenez, galdera hau planteatzen dugu: zure departamentuak zer neurri jarri du edo jarriko du abian bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diona?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-25/POR-00230. Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoen eta hibrido entxufagarrien portzentajea igotzearen balorazioari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoen eta hibrido entxufagarrien portzentajea igotzearen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Par-

lamentuko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak ekainaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aste horretan bertan jakin da ibilgailu elektriko eta hibrido entxufagarrien portzentajea nabarmen handitu dela Nafarroan azken urtean. Zalantzarik gabe, igoera horretan garrantzi handia izan dute azken urteotan garatutako politikek, bai industriaren eremuan, bai ingurumenaren eremuan. Hori dela eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari galdetzen diogu: zer balorazio egiten duzu Nafarroan ibilgailu mota horiek izan duten hazkundeari buruz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/POR-00231. Galdera, Belateko tuneletako obran Kontratazio Mahaiko lehendakariak izandako jokabideari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Belateko tuneletako obran Kontratazio Mahaiko lehendakariak izandako jokabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Galdera arrunta, 2025eko ekainaren 12ko Osoko Bilkurarako:

Nafarroako Gobernuko lehendakari andrea, Nafarroako Gobernuko lehendakari zaren aldetik, Kontratazio Mahaiko buru Polo jaunak Belateko tunelen obran izandako jokabidea defendatzen duzu?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00232. Galdera, paziente euskaldunentzako logopedia-arretari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, paziente euskaldunentzako logopedia-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldian, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko logopedia-arretari buruzko mozio bat onetsi zen Nafarroako Parlamentuan. Mozioak bi puntu zituen:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du euskararen eskakizuna derrigorezkoa izan dadin logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere...

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du euskararen eskakizuna duen plaza bat sar dezan logopedia espezialitaterako Lan Eskaintza Publikoko hurrengo deialdian.

Horri buruz, parlamentari honek honako hau galdetzen du:

Zer ekimen abiarazi du Osasun Departamentuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan artatzen diren paziente euskaldunei logopedia-arreta bermatzeko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/POR-00233. Galdera, Nafarroan tasa turistikoa bat aplikatzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroan tasa turistikoa bat aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan tasa turistikoa bat aplikatzea baztertzeko al du Gobernuak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean.

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/POR-00234. Galdera, BSHren egoerari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, BSHren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer informazio darabil BSH enpresaren egungo nahiz etorkizuneko egoerari buruz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/POR-00235. Galdera, Kirolaren Plan Estrategiko berriaren aurkezpena atzeratzeko arrazoiei buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Kirolaren Plan Estrategiko berriaren aurkezpena atzeratzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik atzeratu da Kirolaren Plan Estrategiko berriaren aurkezpena?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/POR-00236. Galdera, gure erkidegoko organo-emateen datuei buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, gure erkidegoko organo-emateen datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2025eko ekainaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aste honetan jakin dugu oraindik Nafarroa dela organo-transplante gehien egiten dituenena., Orobat jakin dugu Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa izan dela transplanterik egiten ez duen zentroetatik organo-emate gehien egiten duena estatuan.

Kontseilariak zer balorazio egiten du gure erkidegoko organo-emateen gaineko datuei buruz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/POR-00237. Galdera, haur-pobrezia zuzentzeko neurriei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, haur-pobrezia zuzentzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta ENpleguko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du gure erkidegoan haur-pobreziaren egoera hobetzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/POR-00238. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 12ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Nafarroako Gobernua zer datatan konprometitzen da lizitatzera Nafarroako Ubidearen bigarren fasea?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00239. Galdera, zenbait instituzio eta forotan euskara erabiltzea ukatzen duten jarrera politikoen gaineko balorazioari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, zenbait instituzio eta forotan euskara erabiltzea ukatzen duten jarrera politikoen gaineko balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollok datorren ekainaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusten ari gara zenbait alderdi politikok ukatu egiten duela zenbait instituzio eta forotan euskara erabiltzea, adibidez Europar Batasunean. Hori ikusita, honako hau galdetzen dizugu: zer balorazio egiten duzu zenbait erakunde eta forotan gure hizkuntza erabiltzea ukatzen duten jarrera horiei buruz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00240. Galdera, etxebizitzaren arloko politika publikoetarako baliaibideei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, etxebizitzaren arloko politika publikoetarako baliaibideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita-

koaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren ekainaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakarien ekainaren 6ko Konferentziaren ostean, Espainiako estatuko gobernuko lehendakariak egindako proposamena dela-eta Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuésék iragarri zuen Nafarroako Gobernuak baliaibide gehiago jarriko dituela etxebizitzaren arloko politika publikoetarako.

Horregatik guztiagatik, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Nafarroako Parlamentuaren ekainaren 12ko Osoko Bilkuran: Nafarroako Gobernuak nola gauzatuko du konpromiso hori eta zer neurri zehatz ezarriko du hori finantzatzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/POR-00241. Galdera, BSH bezalako enpresa estrategikoak ixtea ekiditeko eta industria-enplegua babesteko neurri zehatzei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, BSH bezalako enpresa estrategikoak ixtea ekiditeko eta industria-enplegua babesteko neurri zehatzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 12ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz ezarriko du gobernu zentralarekin koordinatuta BSH bezalako enpresa estrategikoak ixtea ekiditeko eta industria-enplegua babesteko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00242. Galdera, Unibertsitatera Sartzeko Proban gertatu diren joera ideologikoei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Unibertsitatera Sartzeko Proban gertatu diren joera ideologikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2025eko ekainaren 12ko Osoko Bilkurarako gaurkotasun handiko galdera

Nafarroako Gobernuako lehendakaria:

Unibertsitatera Sartzeko Proban gertatu diren joera ideologikoak defendatzen al dituzu?

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00243. Galdera, enpleguak foru erkidegoan duen bilakaerari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, enpleguak foru erkidegoan duen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariari zuzendua, 2025eko ekainaren 12ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du enpleguak gure erkidegoan duen bilakaerari buruz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/POR-00244. Galdera, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Europako Sareak pobreziaren egoerari buruz egin duen 15. txostenean jasotako Nafarroako datuen bilakaerari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Europako Sareak pobreziaren egoerari buruz egin duen 15. txostenean jasotako Nafarroako datuen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariak zer balorazio egiten du Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Europako Sareak pobreziaren egoerari buruz egin duen 15. txostenean jasotzen diren Nafarroako datuak direla-eta?

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseilurako aukeratu behar dituen bost kideak hautatzeko hautagaitzak

aurkezteko epea **2025eko ekainaren 17ko 17:30ak arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

